

Joxe Azurmendi

Idazlea

Mila Euskal Olerki Eder

■ Etorriko balitzaigu norbait esaten: «Gorbea osoa urrezkoa da barruan», edo «Araba guztiaren azpian dena petrolio da», jesukristorena irudituko litzaiguke milagro hori, egia bada noski.

Onaindiaren kasuan egi-egia zen, urrezkoa zen mendi guztia. Barkatuko didazue ni berriz *Mila Euskal Olerki Eder* guretzat izan zen errebelazioarekin hasten banaiz.

Aita Onaindiak hainbat eta hainbat bestelako lan ere egin du. Lan inportanteak. Nahi dena esango da, baina beste inon aurkitzen ez dena bilatzen dugunean, haren Historiara jotzen jarraituko dugu. Hainbat itzulpen, bilketa, azterketa, bere kreaio propio. Ikas-toletarako materialak eta otoiizerakoak. Olgetako eta ikerketakoak eta burua euskal bertsolaritzaz edo berdin kultura internazional klasikoaz janztekoak.

Poesian, batez ere, Aita Onaindiak eutsi dio bizirik sukaldean su txikiari gerraostean. Laredon, Carmonan, Hoz de Aneron, Logroñon ibili ondoren garzaletan eta desterruetan bueltaka, gudarien kapilau izateagatik Estatuak eta Elizak zigortua, azkenean Euskal Herrira etorri eta berehala ipini ditu martxan *Karmel, Olerki*, eta Larreako Olerki Egunak. Hainbat gazteri berak eskaini dio non publikatu eta eman dio animoa lehen urratsetan. Bere bihotzean eta begietan zegoen ontasuna, gazteon obratxoetan ikusten zuen berak. Desengainu pare bat kostatu zaio, ez du galdu halere irribarrea. Al-

Mila Euskal Olerki Eder-ek eman ziguna kontzientzia berri bat bezala izan zen, harrotasun berri bat derrotaren erdian

ferrik dira batzuen susmoak. Santi ez da izan euskararena bakarrik zalea: literaturaren oso zalea zen eta poeziale porrokatua bereziki euskaraz hala erdaraz.

Nik uste, Larrea aldera bildu zela, Onaindiaren babespera, momentu horretako euskal poesia gehiena, zegoentxoa, zaharra nahiz berria. Haren inguruan lehendikoak eta Aresti bezalako berriak juntuatu ziren. Edo *Otsalar*, Aresti baino inportanteagoa orduan, Jon San Martin; Onaindiarekin batera, ahazterik ez da en berri-zaile eta erabaki handi bat gerraondoko poesia berriarentzat berau bestainbeste. Edo Gandinaga, Joan Mari Lekuona. Orain gutxiago ezagutzen den hainbat gazte. Edo Luis Mari Mujika eta ezagunagoak. Paulo Iztueta, Muniategi, Aita Onaindia egile bezain eragile aparta izan da orduko poesian. Gaur nekez imaginatu ere egin litekeen zorra dugu denok harekin, gure belaunaldi guztiak, eman digun hainbat lan eta laguntzagatik.

Ez da berdin, halere. *Mila Euskal Olerki Eder-ek* nolabait eman ziguna (1954)

kontzientzia berri bat bezala izan baitzen, harrotasun berri bat derrotaren erdian. Lanak eta liburua izan litezke berak berdinak edo berdintsuak, baina esanahia oso diferentea edukitzen dute gero. Esaterako, zu gaztetxoa zara eta eskolan begiak lagunen batek irekita seguruenik, euskalduna zarela deskubritzen duzu egun batean. Zure barnean amorruruz gura zenuke euskalduna izan. Nola, ordea? Zure inguruan euskal kultura inexistente dago, desertua da. Ez dago inor ezer. Eskolan euskaldunak basapiztiak zirela, ikasten duzu, eta literatura espainola.

Liburu batek deskubritzen dizu orduan, hori guztia ez dela egia, euskal munduan dena ez dela basakeria eta mortua: baduzula historia bat zuk ere, badagoela bizitza zoragarri bat zu non sustraitu iragan zahar poetikoan.

Gainera, liburua, «txikiak handia benzi leidi»-ren ingrediente poliziako gutietekin heldu zaizu klandestinitoki eskuetara. Editatu orduko han joan ei da Goardia Zibila arrapaladan konbentura liburua bahitza: Aita Onaindiak, or-

dea, ezkutaturik zeuzkan gehienak ordurako eta ezin izan dizkiote gutxi baino harrapatu. Eskupetik batzuten da orain lagunik lagun. Liburu dotorea da, ederra. Kalitateko paper ona. Sensualitate pozgarri bat sentitzen du orrikatzean eskuak. Herri garaitu zanpatuaren mendeku gozoa da Estatuaren terrorismo harroputzari.

Mila Euskal Olerki Eder ez da, batzutan ikusi nahi den bezala, antologia handi bat soilik. Gure belaunaldiarentzat liburu hori antologia on bat gehi euskal poesiaren historia bat — eta beste bat hoberik oraindik ez dakit egin al den — gehi eskola bat eta harrobi bat, eta gure musa askoren inspirazioaren olino sekretua izan da. Gerraondoko belaunaldi gaztearen merezimendua bezala goraitu ohi dugu, esate baterako, *olerkartz* eta arnismoaz haraindira, berriro tradizio klasiko zaharrek elkarraitu izana. Egia. Baina edozeinek aski dizu Aita Santiren liburua irekitzea, ikusteko — ez hor bakarrik, baina — non ahal izan genuen deskubritu eta ikasi tradizio aberats hori, ahozko poesia antzinakotik hasi eta Gabriel Arestik gerraurreko *olerkari* denak baino poeta goa kontsideratzen zuen Bilintz *herri-berbetsolaria*-ganaino. Hor ospatu du, euskararen mundu ederrenean, bere lehenengo garaipena gerraondoko belaunaldiak. Eta hortxe aurkitu zizun Asaben Egoitza, hondamenaren sasi eta labar arteko horma zahar ilunetatik, birreraikitzeo materiala eta adorea. ■

Unai Iturriaga



Bizitzaz eta...

Bera Gurutzetan jaio zen. Baloi batekin kolpatu zituen hormarik lohienak, zikinak. Baina urteak ez doaz alperrik eta uniformeak beti uniforme. Nerabezaroan gaurauak ateratzen zitzaizkion beste gutxiel bezala. Kanpaia jotzen zuen egunero eta noizbait narraua joko zuenarekin egiten zuen amets. Behoko tabernan *Winston*-a saltzen zuen, kontrabadoakoa. Bazezien kostoa non hartu eta *speed*-a zenbaitetan zegoen. Behinoia etxean gorde zuen hura ez zen «terrorista» orain esaten den bezala baina bizia kendu zion bitxitxigiko hark ez du berriz zigarrorik piztuiko.

Eta adiskidantza hitzegiten didate, giza eskubideez. Erahilteza, hiltzea ez omen da zilegi. Nik ikasi ditudan *Historiako* liburuetan ez da bestetaz hitzegiten. Pertsonen bizitzak hainbeste balio duten honetan, hirurogei bat erahiltzen ditugu gosez minutuko. Pistola ez ei da bidea eta balak ez omen dira helburua. Maparen koadrantearen arauera neurtzen da hemen norberaren balioa.

Eta esaten didate uniformedun horrek ez daukala errurik. Baina bere auzoan ezin da kostorik hain erraz saldu eta *speed* bila Bilbora joaten dira. Evaristok esaten zuen bezala: *Antes era un hombre y ahora es poli!*

Mikel Aramendi



Horren zaharra, honen berria

Bosniako gerraren barrenalde zikinene-tako batzuk (hiletgiak, hilobiak,...) ezagutzen goazen adinean, zerak txunditzen nau gero eta txundituago: zein berri gutxi asmatzen duen gizakiak kristau aroaren hogeigarren mendea amaitez gauden honetan.

Banekien, adibidez, alderdietako bakoitzak bazuela gaitzizen bat, historiatik eratorria, besteei dei/irain egiteko: *turkoak, ustaxiak, txetnikak...* Bosniar askaberri batek, ordea, kontatzen zuen lehengoan bere lantegi derrigortuan zaindaria serbiarrek deitzen zirela... *metekoak*.

Deitzaile zein deituek, behar bada, ez zuten jakingo *metekoak*, sorburuz, hots Grezia klasikoan, hiritarren eskubiderik gabeko bizilagun atzeritarrak zirela: haatik, hiritar orok bezain-besteakoak ezezik *metoikion* deitu zerga berezia ordaindu behar izaten zuten *metekoak*. Hitzaren etorkia ezagutu ala ez, deitua nahiko egoki erabili bide da Bosniako gerraldian: orduaren truke eginarazten omen zieten lan serbiarrek presoel langintzarik arrisksuetan. Gehienera, esplozazio molde hori *metekotza* ala esklabutzaren zuzenkiago eztabaida liteke...

Metekoak, jakina, ez ziren Grezia klasikoarekin desagertu. Orainxe bertan ikusi dut bat kalean, kinkila sartzen. *Paisa* esaten diogu, baina *metekoa* da zuzenkiago. Bosniako gerrari esker, behar bada, izena berreskuratuko dute izana sekula galdu ez dutenek.

L A P H I T Z A

